



Traba egiten dugu?

Mezu kontrajarriak heltzen zaizkigu azken boladan. Urte hasierako egutegietan Donostiako betiko komertzioak agertzea nahi dute, hiriak duen altxor bat izango bagina bezala, eta urteko gainerako hilabeteetan gurea bezalako denda eta taberna zaharrak bata bestearen atzetik desagertzen ikusten ari gara, instituzioek beste aldera begira txistu egiten duten bitartean. Halaxe gaude, beraz, ez dakigula hiriaren harrotasuna ote garen edo benetan traba besterik ez dugu egiten.

Hala bada, esan lasai eta kenduko gara paretik, e? Benetan, guk ez dugu arazorik, edo beharbada bai, baina gehienez ere gure arazotxoak dira eta ez ditugu gehiengoaren nahiaren aurretik jarriko. Zeren hori baita garrantzitsuena demokrazian, gehiengoaren nahia. Eta hemen argi dagoena da gehiengoak Zara eta Mango doinuak eta turistek alde zaharretik paseatzen dutenean egiten duten txin-txin hotsak entzun nahi dituela. Bai, ezta? Gehiengoak hori nahi du eta bide hori urratzen duten politikariak hautatu ditu horretarako. Non dago arazoa orduan? Ez dago arazorik.

Bueno, bai, hor daude betiko lau katuak, denagatik kexaka. Metroa? Ez. Erraustegia? Ez. McDonalds Bretxan? Ezta ere. Ezetzaren Koordinakundea. Baina esandakoa, lau katu besterik ez dira eta gero eta zarata gutxiago egiten dute gainera. Donostiarren gehiengoak ez du arazorik aurrera garamatzan hiri-modu honekin. Ezta? Beti aurrera! Erabat Zaramangoz betetako Donostia izango dugu laster, gutxi falta da eta animo, lortzen ari gara Europako eta are mundu zabaleko beste edozein hiri bezain kosmosuperpolita izaten.

Eta hizkuntzarekin ere berdin, gero eta gehiago izango dira haien seme-alabei ingelesez hitz egiten dietenak: "Julen, share the ball with your brother". "Do you want an icecream, Ainara?". Horrela bai, gustua ematen du hiri honek. 40 urteko urperatze linguistikoa bere emaitzak ematen ari da azkenean. Proposamen batekin bukatzeagatik, Euskararen museo bat egin lezake Udalak Alde Zaharreko txokoren batean, "*Basque Language Museum*" edo halakoren bat, eta ondoan, karpa baten azpian adibidez, "*Local Commerce Museum*" bat.

Azken finean gure nortasunaren parte dira bata zein bestea, ezta? Basque Identity!

Ines, Marga eta Gotzone Matxiarena Aldalur (ESKULANEN ETXEA)